

### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Energia elektrikoa

2020ko urrian, aurreko urteko hilabete berberekin alderatuz ondoko aldaketak izan zituen elektrizitatearen kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: -%10,1. Urteko metatua, -%10,2.
- Industria: -%17,8. Urteko metatua, -%15.
- Eraikinak: %0,8. Urteko metatua, -%4,4.
- Etxebizitzak: %5. Urteko metatua, %1,8.
- Zerbitzuak: -%2. Urteko metatua, -%9.
- Siderurgia: -%25,1. Urteko metatua, -%20,6.

#### Gas naturala

2020ko urrian, aurreko urteko hilabete berberekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak EAEn:







- Guztizkoa: -%28,6. Urteko met., -%16,6.
- Zentr. term.: -%77,1. Urteko met., -%26,7.
- Gainontzekoa: %3,1. Urteko met., -%12,8.

#### Erregaiak garraioan

2020ko irailean, aurreko urteko hilabete berberekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaien kontsumoak EAEn:

- Guztizkoa: %10. Urteko metatua, -%9,3.
- A Gasolioa: %11,2. Urteko metatua, -%8,2.
- Gasolinak: %0,4. Urteko metatua, -%18,3.

Iturriak: EEEren lanketa, CORES, Enagás eta Iberdrolaren (energia fakturatua) datuetan oinarrituta.



**Nazioarteko egoera**

**Petrolioaren kontsumo munduan**

2020ko urrian, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuz, munduko petrolioaren kontsumoa eta bere aldaketak ondokoak izan ziren:

- Gututzikoa: 95,3 Mbpd, (-%5,8)
- Europa: 13,8 Mbpd, (-%9,6)
- EE.BB: 18,8 Mbpd, (-%9,3)
- Txina: 14,2 Mbpd, (-%2)

Munduan, azken 12 hilabeteen batez besteko kontsumoa 93,7 Mbpd izan da 2020ko urrian.







**Gas naturalaren kontsumoa munduan**

OCDEko herrialdeetan, 2020ko abuztuan, aurreko urtekoarekin alderatuz, gas naturalaren kontsumoa zonaldeka eta beren aldaketak ondokoak izan ziren:

- OCDE Osoa: 130,4 bcm (%0,2).
- OCDE Amerika: 80,7 bcm (-%2,3).
- OCDE Asia-Ozeania: 20,3 bcm (%5,2).
- OCDE Europa: 29,5 bcm (%4,2).

2019ko abuztuan, Alemaniak, Italiak, Erresuma Batuak, Herbehereak, Frantziak eta Espainiak Europar OCDE osoaren %69,5a kontsumitu zuten.

Iturriak: EEEren lanketa, AIE-ren eta EIA-ren datuetan oinarrituta.



### Energiaren kontsumoa Espainian

#### Energia elektrikoa

2020ko urrian Espainiako elektrizitatearen kontsumoa, 2019ko urrian baino %3 txikiagoa izan da. Urteko kontsumo metatua aurreko urteko hilabete berekoa baino %6 txikiagoa izan da.

Sorkuntza elektrikoari dagokionez, 2020ko urrian ondokoa izan da:

- Berriztagarriak: %50 (eolika: %28).
- Erregai fosilak: %28.
- Nuklearra: %23.

#### Gas naturala

2020ko urrian, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituen gas naturalaren kontsumoak Espainian:

- Guztizkoa: -%14,3. Urteko met. -%11.
- Zentr. term.: -%46. Urteko met. -%21,9.
- Gainontzekoa: %3,1. Urteko met. -%6,4.







#### Erregaiak garraioan

2020ko irailean, aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, ondoko aldaketak izan zituzten garraiorako erregaiak Espainian:

- Guztizkoa: -%6,6. Urteko metatua, -%19,4.
- A Gasolioa: -%6,9. Urteko metatua, -%18,8.
- Gasolinak: -%5,4. Urteko metatua, -%22,3.

Iturriak: EEEn lanketa, REE, ENAGAS eta CORESen datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioak



**Energiaren prezioak**

**Petrolioaren prezioa**  
 Brent upelaren batez besteko prezioa 40,19\$ (34,1€) izan zen urrian.  
 Aurreko urteko hilabete berdinarekin alderatuz, prezioa % 33 baxuagoa izan zen (%37 baxuagoa eurotan).

**Gas naturalaren prezioa**  
 Europako merkatuetako prezioak hurrengoak izan ziren urrian:  
 - Holandar TTFa (erreferentziako prezioa europar merkatuan): 13,8 €/MWh.  
 - Espainiar MIBGASa: 13,4 €/MWh.  
 - Alemaniako EGIX M+1: 11,2 €/MWh.







Gas naturalaren prezioak nazioarteko merkatuetan hurrengoak izan ziren urrian:  
 - EEUU Henry Hub: 8,2 €/MWh.  
 - Japonia: 14,2 €/MWh.

**Elektrizitatearen prezioa**  
 Espainian, eguneroko merkatuan, elektrizitatearen prezioa 36,6 €/MWh izan zen urrian, aurreko urteko hilabete berarekin konparatuta %35,6 baxuagoa.  
 Alemanian berriz SPOT merkatuko hilabeteko batez besteko prezioa 34 €koa izan da eta Frantzian berriz 37,9€koa.

**Erregaien prezioak**  
 2020ko urrian garraiorako erregaien prezioa eta aurreko urteko hilabete bereko prezioarekiko diferentzia, ondokoak izan ziren EAEn:  
 - A Gasolioa: 1,06 €/l. (-%15,2).  
 - Gasolinak: 1,18 €/l. (-%11).

**CO<sub>2</sub>-aren prezioa**  
 CO<sub>2</sub>-aren europar baimenak 25,2 €/t-ko halina lortu zuen urrian

Iturriak: EEEren lanketa, EIA, OMIE, OMIP, Powernext, MIBGAS, Japoniako Ekonomia Ministerio, EEX eta beste iturri batzuen datuetan oinarrituta.



### Elektrizitatearen ekoizpena Europan

#### Espania

Espanian, sorkuntza elektrikoak, orokorrean, eta energia berriztagarriak, bereziki, ekoizpen hidroelektrikoren mailaren eraginpean daude, klimatologiak baldintzatzen duena (urte lehorra vs. urte hezea).

2020ko abuztuan, azken 12 hilabeteen batez besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %44 (eolika %21).
- Nuklearra: %21.
- Fosila: %35 (ikatz %3).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 21204 GWh izan da.

#### Frantzia

Frantzian, energia nuklearrak, pisu nabarmena izaten jarraitzen du.

2020ko abuztuan, azken 12 hilabeteen batez besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %25.
- Nuklearra: %65.
- Fosila: %9.

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 43110 GWh izan da.

#### Alemania

Alemanian elektrizitate sorkuntzan, azpimarratzekoa da erregai fosilen parte-hartzea.

2020ko abuztuan, azken 12 hilabeteen batez besteko elektrizitatearen ekoizpena ondokoa izan zen iturriaren arabera:

- Berriztagarria: %46 (eolika %24).
- Nuklearra: %12.
- Fosila: %42 (ikatz %24, gas naturala %16).

Azken 12 hilabeteetako batez besteko ekoizpena 46226 GWh izan da.

Iturriak: EEEren lanketa, AIE-ren datuetan oinarrituta.